

txintxarri



Bat egitera. Zuk egitera. Euskaraz!

Korrika txikiarekin herria girotzen hasiko da gaur, bihar Korrika festa eta asteartean, 22:41etik aurrera Korrika gurean. / 5-10

TXINTXARRI

Memoriaren plaza

Aste betez egongo da erakusketa Okendon, bi mahai inguru ere egingo dira /2

EHBilduren osoko emendakina gaur bozkatuko den 2017ko aurrekontu proiektuari /3

LOKEKO gimnasta gehienak sailkatu dira Gipuzkoako txapelketarako bakarka zein taldeka /11



ASEGUROAK
Ges
BIZUK

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguroak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Erretiroak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguroak
- ✓ Eta gehiago!





Udaleko talde politikoetako eta herri eragileetako ordezkariak gerturatu ziren aurkezpena. TXINTXARRI

Memoriaren Plaza astelehenean iritsiko da

Bizikidetzeta eta memoria lantzea helburu duen ekimen partehartzailea Okendo plazan kokatuko da apirilaren 3tik 9ra. Testigantzen erakusketaz gain, zenbait mahai-ingurutara gerturatu ahal izango dira herritarrak

Martin Vicioso

Datorren astelehenean iritsiko da Okendo plazara Memoriaren Plaza. Alkate Jesus Zaballosek eta Gogora Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarrok nabarmendu dutenez, "elkarbanatutako memoria" lantzea du helburu ekimenak. Batez ere, "indarkeriaren biktimia izan diren horien ahotsak anplifikatu" nahi dituzte..

Ekimenaren aurkezpena Lasarte-Oriako Udalean ordezkariak duten talde politiko guztietako eta herri eragiletako kideak gerturatu ziren. Ezenarroren ustez, "albiste pozgarria" da, "memoria denon artean eraiki beharrekoa delako"..

Hiru gune

Okendo plazan kokatuko den karpako erakusketak hiru gune nagusi izango ditu. Zaballosek eta Ezenarrok azaldu dutenez, bakoitzean memoriaren arlo ezberdin bat jorratuko da. Lehenengoa "terrorismoaren

biktimei zuzendutakoa izango da". Bertan, ETaren indarkeria jasan duten pertsonen testigantzak jasoko dira, baita GAL, BVE edota AAA taldeen biktimenak ere.

Indarkeria poliziala pairatutako euskal herritarrei eskainitakoa izango da bigarrena. Azkenekoa, berriz, memoria historikoari eta gerra zibileko eta frankismo biktimei zuzendutakoa.

Eztabaidak mahai-inguruetan

Jendartean memoriari eta bizikidetzari buruzko gogoetak bultzatze asmotan, bi mahai-inguru antolatu dituzte apirilaren 4an eta 6an.

Indarkeriaren biktimia diren Josu Elespek, Feli Goikoetxeak eta Manoli Urritegik osatuko dute lehena.

APIRILAREN 4EAN ETA 6EAN MAHAI- INGURUAK EGINGO DITUZTE OKENDOKO KARPAN

Asteartean, 19:00etatik aurrera haien testigantza pertsonalak azaleratuko dituzte herritarren aurrean. Antolatzaileek adierazi dutenez, "gerturatuko direnen parte hartzea eskertuko" lukete.

Osteguneko ordu berean inguruko hiru alkateek hitz egingo dute. Sentsibilitate politiko desberdinetakoak beraiek: Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballok (PSE-EE), Hernaniko alkate Luis Intxauspe (EH Bildu) eta Urnietako alkate Mikel Pagola (EAJ). Etorkizunera begira, bakea herri mailan eraikitze gako inguruan solastuko dira.

Egunero, dokumentalak proiektatuko dituzte Memoriaren Plazan. 16:00tan eta 17:00etan lanegunetan, eta 13:00etan eta 15:00tan jaiegunetan.

Gaztetxoei zuzendutako ekintzak ere prestatu dituzte. Goizero, herriko ikastetxeetako ikasleak gerturatuko dira Memoriaren Plazara erakusketak ikusi eta haien artean ere gogoetak eragitera.

Sagardopotea antolatu dute ostegunerako

Aterpeko zazpi tabernetan 19:00etatik 21:00etara sagardoa dastatu ahal izango dute herritarrek

Maidar Azurmendi

Bigarren urtez Aterpeakoek Sagardopotea antolatu dute. Hitzordua ostegunean, apirilaren 6an, izango da 19:00etatik 21:00etara. Ramon Ormazabalek azaldu moduan, iaz ekimenak harrera ona izan zuen eta aurten arrakasta berdina izatea espero da.

Arkupe, Buenetxea, Viña del Mar, Lasarte, Yolanda, Araeta eta Izurde tabernetan izango da sagardopotea. Taberna bakoitzak sagardo desberdin bat izango du aukeran, Larrarte, Alorrenea, Bereziartua, Mina, Itxas buru, Araeta eta Saizar. Ekimena Tirriki-Ttarrakako musikariek gidatuko dute.

Aterpeko lehendakariak gogoratu zuen Murias Loidi Barrengo parkinga doan lortu dezaketela euren bazkide diren dendetan hamar euro baino



Viña del Mar-en aurkezpena. TXINTXARRI

gehiagoko erosketara egiten duten herritarrek.

Ekimen honetan parte hartzera deitu zuten eta Jesus Zaballok alkateak adierazi zuen pozgarria zela horrelakoak antolatzea herritarrak herrian gera daitezen bere aisialdian.

Alokairuko etxe publikoak sustatu nahi ditu Udalak

Agustín Valdivia hirigintzako zinegotziarekin batera, bi bilera egin ditu Jesus Zaballok alkateak Alokabideko eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Saileko arduradunekin. Horietan, hitzarmen bidez etxebizitza municipalak eta zenbait partzela uzteko, eta alokairuko etxebizitza publikoak eraiki ahal izateko bildu dira.

Buenos Aires Aldapan behe-tentsioko aireko linearen eraldaketa

Iberdrola Distribución Eléctrica kontratatu du Udalak Buenos Aires aldapan behe-tentsioko aireko linea lurperatzeko lanak egiteko. Leku berean espaloiak zabaltzeko egin berri diren urbanizazio lanek beharrezko egin dute eremu horretako behe-tentsioko gaur egungo linea aldatzea. 17.049 euroren truke egingo dute aipatu lana.

Elkarbiziren hitzaldia asteazkenean Villa Mirentxun

'1960-2013 aldirian Euskadin gertatutako tortura kasuak' izango da Elkarbiziren saio berrian jorratuko den gaia. Hizlaria Laura Pego legelaria izango da, Eusko Jaurlaritzaren enkarguz torturak ikertzeko Kriminologiaren Euskal Institutuak izendatu duen taldeko kidea. Ikastaroa 19:00etan izango da, Villa Mirentxun asteazkenean.

Usurbilgo Lanbide Eskola Nazioartekotze ildoari jarraiki

Erasmus, Erasmus + eta atzerriko hainbat eskola eta enprekin proiektu ugari gauzatu ditu eskolak, baina beste urrats bat eman du orain; Zubigune Fundazioa eta Tknikarekin bat, Lisa Wiedemann teknikari alemaniarra kolaboratzaile gisa izateko. Bere ezagutzak eskolaren proiektuak aurrera eramateko baliagarriak izango dira.

Osoko emendakina 2017ko aurrekontuei

Udal Gobernuak aurkeztutako 2017rako Aurrekontuen proiektuari osoko emendakina aurkeztuko dio EHBildu taldeak gaur egingo den ez ohiko batzarrean, kiroldegi berri baten beharra defendatzen du oposizioko alderdiak

Maddi Noriega

Aurrekontuen proiektuaren planteamendua "kezkgarria eta arbuigarria" gertatzen zaiola nabarmendu zuen EHBilduk, eta horregatik, osoko emendakina aurkeztu dio proiektuari.

Aurreko legegintzaldian, Lasarte-Oriako kirol plana, herriaren hutsuneak, beharrak eta aukerak behatu eta identifikatuta zirela esan zuen Pablo Barriok. Plan horren baitan, Atsobakarreko kirol-gunea zegoen, baina ez zen aukera bakarra. Barriok azaldu moduan, kirol-gune horrek, aipatu plan horretan proposatutako beste batzuen antzera, "oso gastu handia" suposatzen du eta herriko bilakaera baldintzatuko luke.

Atsobakarren eraiki asmo den kirol-guneak, kirolzaleei eragiteaz gain, gainerako lasarte-oriatarrei ere eragingo diela adierazi zuten. "Zergatik ez eremu berde izatera bideratu kirol gunea eraiki nahi den lur zati hori? Kirolean inbertsio handi bat proposatzen bada, zergatik eremu horretan eta ez kiroldegi berri bat egiteko?".

Honekin batera, herritarrek erabaki "potolo" hauetan parte hartzeko aukerarik izan ez dutela ere adierazi zuten. "Akats onartezina iruditzen zaigu. Parte-



EH Bilduko kideak Maialen Chourraut Udal kiroldegi aurrean. TXINTXARRI

hartzea, berriro, posturoan geratu da". Kirol arloko beharrak kontuan hartzen badira, kiroldegi berri baten proiektuak "etekin gehiago emango luke"; 2015. urtean, 175.000 pertsonen erabili zuten kiroldegia, eta 50.000ak, Mitxelin.

Kiroldegia zaharkitua dagoela eta, gastua suposatzen du mantenuak; "itoginak ez direnean, kondentsazioa da, edota beste mila arazo, efizientzia energetikoaz ez hitz egitea". Finantziarioaren ikuspegitik ere traba bat baino gehiago ikusten

ditu EH Bilduk; "Hipodromo etorbideko eraikinetan udalari dagozkien etxebizitzetatik 9 permutan ematea. Ez dugu ikasten, patrimonio publikoaren pribatizazioa bultzatzen da diru-iturri moduan". Honekin batera, herritarrei bizkarra emanda eta lasarte-oriatarren kontra egindako aurrekontuak direla uste dute EHBildukoek, eta honen aurrean, prozesu parte-hartzaile batean herritarrek lehenetsitako inbertsioak babestuko dituztela gaineratu zuten.



NEURE KABUZ

UNAI MUÑOA

Korrika badator, baina poliki goaz!

Hamar eta hamaika urteko neska mutilekin egiten dut lan, bertsojaritza erakusten. Sorkuntzaren balioetan hezteaz gain, euskal kulturaren transmisioa eta euskaren erabilera ludikoago bat eskaintzea da gure helburu nagusia.

Mundu osoa hain eskura dugun garai hauetan, edozein abesti, pelikula, bideo-joko... kontsumitzen ditugun teknologiaren lurraldean, gero eta zailagoa da gure mundu txikia babestea. Nire ikasleen gehiengoak ez daki nor den Fermin Muguruza, ez eta gure lehendakariaren izena ere. Donald Trump edo Justin Beaber nor den ederki dakite, ordea.

Geletan euskaraz jarduten bagara ere, jolas orduan zein kalean gaztelera nagusitzen den modu berean, modako kultura kontsumitzen dute, eta gutxitan izaten da euskara modaren parte. Esaten diegu euskarak egiten gaituela euskaldun, bai eta euskara munduari begiratzeko modu bat dela ere. Parte hartzen dugu herrian antolatzen diren dinamika ezberdinetan, belarriprest eta ahobizi gara, maratoiko kanta dantzatzan dugu... eta guzti hau oso garrantzitsua bada ere, kosta egiten zaigu neska-mutilengana iristea.

Hogeigarren korrika pasako da orain gure herrietako kaleetatik, eta euskararen lekukoa eramango dugu azken muturreraino. Musikaz, kolorez eta aldarriz beteko ditugu bazterrak. Ez dugu pausorik atzera emango, baina gure bidea luzezia izango da korrika egiteko, eta orain moda modako kantauk dion bezala, "despacito, despacito" lanean jarraitu besterik ez zaigu geratzen. Gaztelaniaz esaten duten moduan, "despacito pero con buena letra".

Biziberritzen aurrera doa

Herriko merkataritza sustatzea helburu duen Biziberritzen proiektuak 14 establezimendu berri gehitu ditu bere ekimenean. Hutsik dauden lau lokal berritan eskainiko dituzte euren produktu eta zerbitzuak. "Lokal horien funtzio komertziala sustatzea" du helburu, besteak beste, ekimenak. Merkatariekin harremana sendotze bidean Aterpea elkarteak egiten duen lana goretzi dute Udal ordezkariak.



TXEMA VALLES



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria · Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

Kruzeroa taldean

Lasartetik irteera + Noaoaren laguntzarekin

Baltikoko hiriburuetatik

Azken
2
Kamaroteak

943 373 613 - infor@noaoa.eus - www.noaoa.eus
Hipodromo Etorbidea 10, 20160 Lasarte-Oria



Aurtengo 20. Korrikari behar bezalako ongi etorria emateko hainbat ekintza izango dira asteburuan Lasarte-Orian. TXINTXARRI

Maddi Noriega

Aurtengo 20. Korrikak hasi du Euskal Herria zeharkatzeko, euskararen alde bi urtez behin egiten duen lasterketa.

Atzo eman zitzaion hasiera euskararen festa handiari Otxandion.

Atzora arte, ikurrina zintzilik zuen lekuko handi bat udaletxe aurreko plazan egon ostean, eskuz-esku dabil orain Euskal Herriko herri eta txokoak zeharkatuz, eta 11 eguneko ibilbidea du aurretik.

Iruñean emango zaio amaiera aurtengo Korrikari, baina hara iritsi aurretik zeharkatuko dituen herri guztien artean da Lasarte-Oria.

Apirilaren 4an, datorren asteartean jasoko du gure herriak lekukoa, eta hainbat kilometro egin ostean, hurrengo herrira, Usurbilera iritsi eta datozenei

Korrikari ongi etorri kulturala

Martxoaren 30ean abiatuko da aurtengo 20. korrika Otxandiotik eta hamaika egunetan zehar Euskal Herriko txoko ezberdinak zeharkatu eta gero, Apirilaren 9an helduko da Iruñeara. Lauan jasoko dugu herrian eta ongi etorri ekintzak izango ditugu egunotan

emango die lasterketan jarraitzeko pausua.

Baina lasterketari behar bezalako ongi etorria eman asmoz, zenbait ekintza kultural antolatu dira gure herrian eta datozen egunetan izango da horiez

guztiez gozatzeko aukera paregabea.

Gaur, esaterako, Korrika Txikia egingo dute lasarteoriatar txikiek. Goizeko 11:15ean emango diote hasiera ekitaldiari eta herriko kaleetan barrena, lasterketan

arrituko dira gaztetxoak ere, euskararen alde.

Euskararen Maratoia

Honi jarraiki, Euskararen bederatzigarren Maratoiko bideo emanaldia eskainiko da Manuel

Lekuona Kultur Etxean gaur, iluntzeko 19:00etan.

Horrela, orain hilabete batzuk atzera egin eta herrian ospatzen den euskararen festa handian bizitako uneak gogora ekarri ahal izango dituzte bertaratzen diren herritarrek.

Gutik Zura dokumentala

Ostiralari amaiera emateko, Okendo Zinema Taldearekin 'Gutik Zura' dokumentalaren emanaldia ere izango da, kultur etxean, gaueko 22:00etan.

Dokumental honen helburu nagusia basoaren, zuraren eta euskal gizartearen arteko harremanak iraganean izan duten, gaur egun duten eta etorkizunean izango duten balioa gizarteratzea da.

Euskal Herriaren idiosinkrasian basoa eta zurezko zimenduak daude. Dokumental honetan



- Ogi ezberdinak
- Opilak
- Pastak
- Bonboiak
- Kafetegia
- ...

Zatuz gurekin gosaltzera!!



aintzinatik etorkizunerako bidaia egitera gonbidatuko ditu ikus-entzuleak lur honetako gizakiaren eta zuraren arteko harremana azalduz.

Horretarako pertsonaia hautatuen bizi-esperientzia pertsonala eta mundu mailako adituen txori begirada erabiliko dira, historia eta istorio konbinaketa poliedriko baten bidez lehengo, oraingo eta etorkizuneko basoen eta zuraren gako nagusiak azalduz.

Korrika Festa asteburuan

Bihar, berriz, Korrika festa nagusia izango da Lasarte-Orian eta egun osoko egitarau zabal bezain erakargarria prestatu dute egun horretarako.

Kantujirak girotuko du larunbat eguerdia gurean. Horretarako, Xumela eta txaranga ibiliko dira herriko kaleak girotzen.

Hamabietan, Ttakunen eskutik haurrentzako tailerrak izango dira eta tarte horren ostean, herriko elkarte gastronomikoek prestatutako bazkari herriko batekin indarrak bilduko dituzte arratsaldeko ekitaldiei hasiera eman aurretik.

Bazkarirako txartelak

Buruntzapzi, Lasartearra, Intza eta Xirimiri elkarte gastronomikoak arduratuko dira larunbateko bazkari herrikoia prestatzeaz, Etxezarreta harategiarekin batera.

Bi menu prestatu asmo dituzte; gaztetxoentzako makarroiak haragi eta tomatearekin, eta helduentzako txorizo egosia, marmitako-jana postrea, edaria, kafea eta pattarra izango dira.

Horiek dastatu ahal izateko ordea, txartelak eskuratu beharko dira. Horiek, Munterri euskaltegian, Jalgi Kafe

Antzokian eta Ilargi tabernan eros daitezke bihar eguerdira arte. Haurrenak 5 euroren truke eta helduenak, berriz, 12 eurotan.

Tripak bete ostean, berriro ere herriko gaztetxoentzako Ostadarrek antolatutako tailerrak izango dira 15:30etan, eta horri jarraiki, 'Ttiriki-Ttarraka' erromeriak alaituko du herriko giroa eta gorputzak astintzeko tartea izango da beraz, arratsaldeko 18:00etan.

Erradikalak gara eta kontzertuak

Bi ordu beranduago, Ane Labaka eta Bea Egizabal herritarren 'Erradikalak gara' bertso eta bakarrizketak uztartzen dituen lanaz gozatu ahal izango dute herritarrek, iluntzeko 20:00etan Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Bertsoa eta bakarrizketa diziplinak elkar uztartuta. Taulagaineke lana amaituta, gauerako iragarritako kontzertuek luzatuko dute festa eguna goizaldera arte.

Horretarako, 'Rukula' musika taldea arduratuko da gaueko lehen uneei giroa eta doinua jartzeaz, eta hauen emanaldiaren ostean, DJ Zigorren saio bereziaz gozatu ahal izango dute lasarteoriatarrek.

Herriko eragileen kilometroak

Donostiatik datorrela jasoko du Lasarte-Oriak Korrikaren lekukoa eta guztira 18 eragilek eramango dute herrian barrena.

Loidibarrango pilotalekuan

Antolatzaileek atzo jakitera eman zuten, astebururako eguraldiaren iragarpena dela eta Loidibarrango pilotalekuan egingo dira Korrikari ongi etorria emateko asteburu honetarako antolatutako ekitaldiak.



Bederatzigarren Euskararen Maratoia gogora ekartzeko bideo emanaldia izango da gaur, kultur etxean. TXINTXARRI

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest



Garazi Salazar

Gasteiz.
Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · **APIRILAK 27**
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO · **APIRILAK 29**
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · **MAIATZAK 4**
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · **APIRILAK 1**
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · **APIRILAK 6**
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

BILBAO · **APIRILAK 29**
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · **APIRILAK 6**
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · **APIRILAK 6**
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · **MAIATZAK 13**
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!



*Nahi edo behar
duzun huraxe
aurkituko duzu
gurean!*

Fernández
ehunak



Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

www.mondragon.edu/prest

902 110 436



Arrate Korrikako lekukoarekin, semeaz haurdun zegoela. TXINTXARRI

Sentimenez beteriko lekukoa

Emozio handiarekin bizi zuten Korrika festa Arrate Otaegik eta Fleki Izagirrek. Familiako kide eta lagunek bere omenalditxoak egingo diete astearte honetan Oztarango zubian lekukoa hartzean.

Martin Vicioso

Astearte gauean iritsiko da 20. Korrikako lekukoa Lasarte-Oriara. Aurten, euskara eta Korrikaren festa bereziki maite zuten bi euskaltzale omenduko dituzte familia, lagun eta

herritarrek: Arrate Otaegi eta Fleki Izagirre.

Azken urtean zendu dira biak, bere gaixotasuna gainditu ezinik. "Ilusio handiz parte hartzen zuten biek Korrika ekimenean", nabarmendu dute Arrateren

ahizpa Arantxa Otaegik, Flekiren alargun Maka Noguesek eta lagun Pilar Garciak.

"Bi familiatan eta lagunartean korrika beriziki bizi izan da. Eguna iritsiko da eta hutsune bat edukiko dugu. Nolabait haiek

presente edukitzeko modu bat bezala ikusi dugulako egin dugu bat", nabarmendu dute.

Lagunarte eta familiek erlazio handia dute euren artean. Hori dela eta, batera omentzearen "detailetxoak" edukiko dute asteartean. "Azken urteetan ez zuten harreman fisiko handirik eduki, Arrate kanpoan bizi baitzen, baina inguruko bitartez mantendu dute lotura".

"Gainera, biek gaixotasun bera pairatu dute", azpimarratu du Arantxak. "Batak bestearen jarraipena egiten zuten, eta interes handia jartzen zuten horretan. Familiaren bitartez edukitzen zuten elkarren berri. Biak batera gogora ekartzea omenaldi ederra izango da".

Apirilaren 4ean beteko zituen Arratek urteak, halaber. Horregatik ere, egun berezia izango da familiarentzat.

Naturari lotutako bizitza

Lasarte-Orian jaiotakoa zen Otaegi, Goikale auzoan hain zuzen. Hiru anai-arreba dira Otaegitarrek, eta "oso mugitua eta kirolaria" zen txikitatik.

Lasarte-Oriako herri mugimenduetan oso aktiboa zen, "batez ere kulturarekin eta feminismoarekin lotura zuten ekimenetan".

"Lasarte-Oriako emakumeen borrokan oso presente egon zen Arrate", azaldu du Pilarrek. "Egizan eta, gerora, Haina emakumeen taldeko kide izan ginen biak, eta urte gutxitan herrian presentzia handia lortu genuen".

1999an Hainak Korrikako lekukoa hartu zuenean, Arratek jaso zuen lagun Ixiarrekin batera, biak semeaz haurdun zeudela. Orduan sabelean zen Ibaik hartuko du aurten.

Hiru belaunaldiko esperientzia
duten arotzak gara

- Altzairuak neurrira
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

I. Urruzola
aroztegia



Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

www.iurruzola-aroztegia.com

urruzolaaroztegia@gmail.com

943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria



Fleki, eskuinean, Korrika Lasarte-Oriatik pasa zen egun bateko otorduan. TXINTXARRI

"Oso hunkigarria" izango dela aitortu du ahizpak. "Ilusio berezia egiten dit egun horretan tripan zuen izakitxoak aurten amaren omenez eramatea testigua".

Euskara eta Korrikarekin harreman berezia zuen Arratek. "Lasarte-Oriako AEK Muntteri euskaltegiko lehen urteetan eskolak eman zituen, urtebetez", gogoratu du ahizpak.

Baina, dudarik gabe, naturarekin oso lotuta zegoen pertsona zen Arrate.

Pasioz bizi zuen mendia, eta inguruko gailur ugari bisitatzeaz gain, munduko ederrenen artean dauden beste batzuk ere igo zituen. 1993an Ameriketako tontor garaienera igotzea lortu zuen, Aconcaguara, 13 lagunekin batera.

1998an, berriz, Himalayara egin zuen bidaia. Gasherbrum IIan, 8.035 metroko mendian,

astindu zuen Lasarte-Oriako Batasuna Kirol Taldeko bandera. Ilusio eta poz handia sortu zuen herrian, eta herritar asko hurbildu zen amak, ahizpak eta anaiak tren geltokian dantzatutako agurrera.

"Ibai semea eduki zuenean, erritmoa mantsotu zuen, baina ez zion utzi mendira joateari. Erronka xamurragoak jartzen zizkion bere buruari".

Naturari lotuta bizi izan zen beti Arrate, eta haren bueltan egin zuen lan. Bere bikotekidearekin batera Errezilgo baserri batean abiatu zuen proiektua, eta bertan bizi ze azkenaldian.

Hala ere, Lasarte-Oriarekin harreman handia izaten jarraitu zuen, eta ahizpak dionez, "asko gustatzen zitzaion egun seinalatuetan bueltatzea". Festa egunetan eta ekimen bereziak

egiten ziren egunetan ohikoa zen Arrate bertan murgilduta ikustea.

Umore ona, helduleku

Zubietan jaio zen Juan Mari Izagirre, 'Fleki'. Hala ere, beti lasarteoriatarra kontsideratu dela nabarmendu du bere alargun Maka Noguesek. "Lasarteoriatarra izatea harrotasunez eramaten zuen; urte askotan bizi izan gara herriko kaskoan bertan".

"Batez ere, jendea elkarraraztea lortzen zuen pertsona zen. Oso lagunkoia, eta herrian oso maitatua. Asko zaintzen zituen

22:00ETAN BIEN OMENEZKO BRINDISA EGINGO DUTE ILARGI TABERNAN KORRIKA EGIN AURRETIK

ingurukoak, eta hark ere berdina jasotzen zuen". Izagirreren "umore ona" eta "izaera bromazalea" nabarmentzen dute. Lasarteoriatar askok sentitzen zuten gertukoa.

Arratek bezala, "Flekik beti izan du euskararekiko sentsibilitate handia, eta harentzat Korrikaren festa beti izan da berezia".

Makak gogoratzen duenez, ez zuen edizio bat bera ere galdu, eta ahal zuena egiten zuen parte hartu ahal izateko.

"Guretzat, Korrika etortzen zen eguna beti izan da oso berezia, San Pedro jaien eta antzeko festa handien modura. Bertan korrika egitea oso gustuko zuen, eta lana egitea egokitzen bazitzaion ere, zerbait asmatzen zuen herritarrekin batera euskararen alde Lasarte-Oriako kilometroak korritzeko".

Herri mugimenduetan oso aktiboa zen Izagirre, eta herrian antolatu diren ekimen askotan "presente" egon da. "Bereziki maite zituen euskara eta Euskal Herria".

Catalunyarekiko eta herri hartako egoera politkoarekiko ere sentipen bereziak zituen Flekik. Lasarte-Oriako eta Torredemarrako herritarren arteko senidetzean asko baneratu zen, eta lagun asko ditu Tarragonako herrian.

Bisita ugari trukatu ditu haiekin. Urtero abiatzen da herritar kuadrila Euskal Herriatik Catalunya. Bestetan, haiek etortzen dira Lasarte-Oriara. Esaterako, gure herrian pasa den urtean montatutako festa ederrean oso murgilduta ibili zen Fleki, lagun artean.

Kirolari eta kirolzalea ere bazen. "Futboleko jokatu zuen urte askotan, eta Añorgan oso

maila onean aritu zen, baina bide horretan jarraitzekotan, parranda gehiegi zuen gustuko", nabarmendu dute irribarre artean. Pilarrek "realzale sutsua" zela nabarmendu du, eta asko izan direla partiduaren bueltan harekin eztabaidatutako herritar eta lagunak.

Egun garrantzitsua

Añorga eta Errekaldetik sartuko da aurtengo Korrika Lasarte-Oriara asteartean. Erdigunean eta inguruko auzoetan ibilbidea egin ondoren, Oria aldera abiatuko da. Bueltan, Oztarango zubi azpian hartuko dute lekukoa Otaegitarren eta Izagirre-Noguestarren familiek.

Biyak Bat zaharren egoitzarako norabidean, oso gertuko zuten Gure Esku Dago ekimenari pasako diote lekukoa.

Familiak eta lagunak jakitera eman dutenez, gaueko 22:00etan egin dute hitzordua Ilargi Tabernan bien omenez brindisa egiteko. Ondoren, lekukoa jasoko duten gunera abiatuko dira gerturatuko diren herritarrek.

Ondare eta oroitzapen handiak utzi dituzte herritarren artean. Pasioz eta maitasunez bizi zituzten ekimenek aurrera jarraitzea ere bada haiek omentzea. Euskara eta euskalduntzea bien bizitzetako arlo garrantzitsuak izaki, Korrikaren ekimenak indar berezia du.

Datorren asteartean hurrengo belaunaldiek eramango dute testigua, Arrateren seme Ibaik eta, seguru aski, Flekiren ilobek, alegia.

Esaerak dioen bezala, "izan direlako gara, eta garelako izango dira". Har dezatela, beraz, testigua, bidean aurrera eginez, urratsez urrats.



50
te eta infusio
baina gehiago
aukeran!

TE ETA INFUSIOAK

- TE EZBERDINAK:
 - Txuria, berdeak, gorria, beltza...
 - Breakfast, Earl-grey, Ceylan...
- INFUSIOAK
 - Melisa
 - Tila
 - Kamamila
 - Anixa
 - Makilgoxo
 - Sagarra
 - Rooibos
 - Menta
 - ...




KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA
- Pico San Cristobal, KOLONBIA
- ETIOPIA
- MEXIKO (Organikoa)
- NIKARAGUA (Organikoa)



Gure kafeaz betetako kapsulak, Nespresso kafe makinekin bateragarriak



Josue
Igeltseritza




Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net



- 0 Ttakun Kultur Elkartea
- 1 EAGI
- 2 Aterpea
- 3 Ostadar/Erketz
- 4 Muntteri AEK euskaltegia
- 5 LAB
- 6 Elkartea gastronomikoak
- 7 EH Bildu
- 8 Zabaleta Auzoa Elkartea
- 9 Ikastetxeak
- 10 Xumela/Sorgin Jaiak
- 11 Udala
- 12 Dinbi Banda/ Kukuka
- 13 TSST
- 14 Argia/Antza
- 15 Otaegi familia/GED
- 16 Pirritx Porrotx eta Marimotots
- 17 Landaberri Guraso Elkartea

aldizkariak
ESKU-ORRIAK
liburuak
katalogoak
AGENDAK
kartelak
EGUTEGIAK
papeleria
koadernoak
LOGOTIPOAK

INPRENTA
offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

**DISEINU
EDITORIALA**



antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 **LASARTE-ORIA**
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus
www.antza.eus

Hemezortzi lekuko aldaketa Korrikak herrian

Atzo eman zituen lehen urratsak Korrikak, Bizkaian. Otxandiotik abiatu eta Euskal Herria zeharkatzen ari da harrezkero. Asteartean helduko da Lasarte-Oriara eta herriko eragile ugari eramango dute lekukoa Zubieta eta Usurbil aldera

Maddi Noriega

2200 kilometro. Horiexek izango dira, hain zuzen, Euskal Herrian barrena euskararen lekukoa eskuz-eskuz igaroz aurtengo Korrikak egingo dituen kilometroak.

Bizkaiko Otxandio herrian eman zituen atzo lehen urratsak, eta Euskal Herrian barrena dabil ordutik.

Apirilaren 4an helduko da Lasarte-Oriara. Donostiatik, Errekalde auzoan jasoko du lehen testigua Ttakun Kultur Elkarteak.

Horrela, lehen kilometroekin kaxkora gerturatu eta hemezortzi kilometro egingo ditu lasterketak, gurean.



Eskurik-esku igaroko dute herriko eragile hainbatek euskararen lekukoa. TXINTXARRI

Ttakun Kultur Elkarteak Eraikin Adimendunen Garapen Iraunkorrari (EAGI) pasako dio lekukoa, herri sarrerako zubi azpian. Hauek, dagokien kilometroa egin ostean, Lasarte-Oriako Merkatarien Elkarteari, 'Aterpea'-ri pasako diete lekukoa herri sarrerako letreroaren azpian.

Hauen zain izango dira bitartean Ostadar Saiarre Kirol Taldeko kideak eta Erketz Euskal Dantzari Taldekoak Donostia Etorbidean, Lanbide parean. Aipatu elkarte horiek, elkarrekin egingo dute herri barneko kilometroa.

Muntteri AEK euskaltegiaren txanda izango da gero. Hauek, Pintore kalean jasoko dute testigua eta Berasategi kafeak komertzio parean zain izango da LAB sindikatua.

Bertan, langileen sindikatukoek lekukoa jaso eta Goiegi biderantz abiatuko dira. Han, herriko elkarte gastronomikoetako kideek jasoko dute testigua eta Pinutegi kale hasieran zain izango dituzten EH Bildu alderdikideek jasoko dute gero.

Horien ostean, kale berdinarean amaiera, Zabaleta Auzo Elkarteak

ekingo dio lasterketari eta herriaren tontoretetik beherantz eramango dute lekukoa. Horrela, Buenos Aires aldapa erdialdean, ikastetxeetako partaideek testigua jaso eta Buruntza kale hasieran egongo diren Sorgin Jaiak eta Xumela kantu taldeko kideengana eramango dute. Lekukoa pasa eta Udaletxe zaharrera iritsiko da gero. Bertan Udal ordezkariak hartuko dute txanda eta lasterketari jarraiki, Zumaburuko eliza alboan entregatuko diete testigua Dinbi Banda eta Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako lagunei.


Jarraian, Txarteleko errotondara iritsi eta TSSTkoek jasoko dute lekukoa. Hauek, Oria Txikira heldu eta Argia aldizkariko kideekin elkartzuta lekuko aldaketa egingo dute.

Azken kilometrotan sartuta, Otaegi, Izagirre/Nogues eta Gure Esku Dagoren txanda izango da gero. Hauek Oztarango zubi azpian jasoko eta Biyak Bat egoitzan entregatuko diete Pirritx, Porrotx eta Marimototx pailazoei. Hauek Euskotreneko errotondara helduko dira eta azken kilometroa egingo duten Landaberri Guraso Elkarteak jasoko du bertan testigua.



Ika, ika, ika... badator korrika!!

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



Carrefour
express



ETXEZARRETA HARATEGIA

• Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria



Hipodromo Etorbidea, 2 - Tel. 943 361 379 / 610 441 544 - LASARTE-ORIA

Gipuzkoako Txapelketara LOKEko zenbait gimnasta

LOKEko gimnastek hitzordu berezia eduki zuten pasa den larunbatean Ibarako Udal Kiroldegian. Denek sailkatzea lortu ez bazuten ere, balorazio positiboa egin du ataleko arduradun den Maite Ruedak

Martin Vicioso

Maiatzaren 20an jokatu da gimnastika erretimikoko Gipuzkoako Txapelketa Eibarren. LOKEko zenbait talde eta kidek sailkatzea lortu zuten Ibarren lehiatutako Amateur Fasean.

Arduradun eta entrenatzaile Maite Ruedak adierazi duenez, "pozik" dira asteburuko emaitzekin. "Ia denek lortu dute sailkapena, eta kontuan hartu behar da maila handia dagoela eta gure gimnasta batzuek denboraz larri ibiltzen direla behar bezala entrenatzeko".

Zailtasunei aurre eginez

Kadete B taldea "urduri" atera zela nabarmendu du Ruedak eta, horregatik, ezin izan zuten bere mailarik onena eman. Zailtasunak zailtasun, sailkatzea lortu zuten eta Gipuzkoako Txapelketara begira akatsak zuzentzeko tarte edukiko dute.

Senior A taldeak "lan ona" egin zuten, nahiz eta hauek ere



Maiatzean dute Gipuzkoakoa. TXINTXARRI

"urduri xamar" atera ziren pistara. "Kategorian maila handia dago, eta bazekiten bere onena eman behar zutela", dio Ruedak. Eskuratutako laugarren postuari esker Eibarren jokatu den lehiaketan izango dira.

Bakarkako lanean hirugarren postua lortu zuen senior B mailako Alazne Gonzalezek, eta lehenengoa senior A-ko Aizpea Arroyok. Beraz, Gipuzkoako finalerako txartela eskuratu dute.

Garazi Gomezek eta Ainara Apeztegiak ez zuten zorte handirik izan eta kanpoan geratu dira. Ruedak adierazi duenez, "ikasketak direla eta, entrenatzeko duten tarte txikia kontuan hartuta, lan ona egin dute".

Eskola artekoak, igandean

Igande honetan, infantil mailako gimnasten txanda etorriko da. Ibarren lehiatuko dira eskola arteko txapelketan LOKE-Landaberri eta LOKE-Sasoeta taldeak. Bakarka, berriz, Alexia Barquinek hartuko du parte uztailarekin. "Itzaropentsu" dira Gipuzkoako finalera iritsi ahal izateko. Aurreko txapelketetan erakutsitako "maila onari jarraipena" ematea nahi du Ruedak.



EUSKAL HERRIKO MUS FEDERAZIOA

Herritarrak Mus Txapelketan

Euskal Herriko Mus Txapelketako final nagusia jokatu zen pasa den asteko larunbatean Anoetan. Guztira 124 bikotek hartu zuten parte. Horien artean, Xabier Arteaga-Benat Esnaola eta Jon Begiristain-Alex Rodriguez bikote lasarteoriatarak. Lan txukuna egin zuten biek, hamasei lehenengoan artean sailkatzea lortuz eta patxaran botila bana irabaziz.

LOKEko judokak primeran asteburuko lehiaketetan

Eneko Eizagirre kadete mailako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen asteburuan, Espainiakorako txartela eskuratu. Talib Vergara taldekideak brontzeko domina irabazi zuen. Yeray Mendibek eta Unai Posadak, berriz, lan txukuna egin zuten. Infantil mailan Lucas Morales Gipuzkoako Txapelkun geratu zen, eta Oier Guisado, hirugarren.

Unai Somovilla txukun aritu zen erkidego artekoan

Buruntzaldea IKTko eskola adineko igerilariak Erkidego Arteko Espainiako Txapelketan hartu zuen parte. Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat 17 puntu bildu zituen, egindako hiru probatan bere marka onenak hobetuz. Taldea, hamaikagarren postuan sailkatu ziren gizonezkoen kategorian eta bederatzigarren bateratuan.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

KADETEEN 1GO MAILA, KOPA

Ostadar SKT 'B' - Zarautz KE

Larunbata. 09:45. Michelin.

Urnieta KE - Ostadar SKT 'A'

Larunbata. 12:15. Urnieta.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Euskalduna SD

Larunbata. 14:15. Michelin.

EMAKUMEEN LURRALDE MAILA

Ostadar SKT - Anaitasuna CD

Larunbata. 15:45. Michelin.

ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA

Ordizia KE - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Altamira, Ordizia.

INFANTILEN OHOREZKO MAILA

Pasaia KE - Ostadar SKT

Igandea. 15:30. Don Bosco, Errenteria.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Añorga KKE - Ostadar SKT

Igandea. 16:00. Rezola, Donostia.

ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

Txoko - Kebab Taberna

Ostirala. 19:45. Kirolgunea.

Ilargi - Also

Ostirala. 20:45. Kirolgunea.

Izkiña - Aita Amari

Larunbata. 09:30. Kirolgunea.

Kattagorri Insausti - Urdaneta H.K.

Larunbata. 10:30. Kirolgunea.

Reformas Lagunak - Viña del Mar

Larunbata. 12:30. Kirolgunea.

GIPUZKOAKO 1GO MAILA

Iurre Taberna - ISU Lehioko

Ostirala. 20:30. Uzturpe pilotalekua, Tolosa

Cecilia Ostadar - Hirukide Eskolapioak

Larunbata. 16:00. M.Chourraut kiroldegia.

3. NAZIONAL MAILA

Elorrioko Buskantza - Ostadar

Antonio Aroztegia

Larunbata. 16:00. M.Chourraut kiroldegia.

GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA

Zarautz 'A' - Kafe Buenetxea

Igandea. 09:00. M.Chourraut kiroldegia.

Lasarte Kafe Bar - Zarautz 'B'

Igandea. 10:30. M.Chourraut kiroldegia.

SASKIBALOA

SENIOR GIZONAK, 3. PROBINTZIALA

Ostadar SKT - Kurkubi SBK

Ostirala. 20:30. M.Chourraut kiroldegia.

ERRENDIMENDUKO JUNIOR NESKAK

Goierri - Ostadar SKT 'A'

Larunbata. 12:15. Aldiri, Urretxu.

Oiarso - Ostadar SKT 'B'

Larunbata. 20:00. Don Bosco kiroldegia, Errenteria.

SENIOR EMAKUMEZKOA, 1. PROBINTZIALA

Summa Aldapeta - Ostadar SKT

Larunbata. 20:00. Chaminade, Donostia.

ERRENDIMENDUKO KADETEAK

Ostadar SKT - Movilteck ISB

Larunbata. 18:00. M.Chourraut kiroldegia.

ERRUGBIA

16 URTE AZPIKOEN LIGA

Gure Etxea Beltzak - Univ. Bilbao

Larunbata. 10:00. Asti, Zarautz.

18 URTE AZPIKOEN LIGA

Gure Etxea Beltzak - Univ. Bilbao

Larunbata. 11:15. Asti, Zarautz.

14 URTE AZPIKOEN LIGA

Bera Bera - Gure Etxea Beltzak

Larunbata. 13:00. Anoetako Mini Estadioa, Donostia.

OHOREZKO B MAILA

AVIA Eibar RT - Babyauto Zarautz

Larunbata. 17:00. Unbe, Eibar.

12 ETA 10 URTEKOAK

Gure Etxea Beltzakeko alebinek

Donibane Lohizuneko Carmen

Txapelketan jokatu dute

Igandea. 09:30. Donibane Lohizuneko errugbi zelaia.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

ESKOLA ARTEKOA

LOKE Landaberri eta LOKE Sasoeta

taldeek eskola arteko bigarren fasea

lehiatuko dute. Banaka Alexia

Barquinek hartuko du parte.

Igande goizean. Ibarako kiroldegia, Ibarra.

PILOTA

SENIORREN GIPUZKOAKO 4 T'ERDIKO TXAPELKETA

Iruretagoiena (Intza) - Loidi (Mundarro)

Artetxe (Intza) - Fernandez (Izurun)

Solano (Intza) - Aranburu (EPL)

Ostirala. 19:00tatik aurrera. Michelingo pilotalekuan

BINAKAKO PROMOZIO TXAPELKETA, FINALA

Arteaga II/Erasun - Peña II/Salaverri

Larunbata. 17:45. Beotibar pilotalekua, Tolosa.

Lauko finala eta bigarren mailara igotzea helburu

Fase erregular bikaina egin ostean, igotzeko gertu daude saskibaloiko Ostadar SKT-ren hirugarren mailako gizonezko seniorrak. Final zortzirenetako lehenengo norgehiagoka irabazi dute, eta lauko finalerako txartela herrian ziurtatu beharko dute

Martin Vicioso

Hiru urteko ibilbidea egin du Ostadar SKT-ren gizonezko seniorren taldeak. Orain arteko denboraldirik onena ari dira egiten aurtengoan. Gipuzkoako 3. Mailako beraien taldean hirugarren sailkatu dira, liderraren puntu kopuru berdinarekin, eta igoera lortu ahal izateko kanporaketetan erabat murgilduta daude orain.

Final zortzirenetako joaneko partidua irabazi zuten pasa den igandean Lezon, Kurkubi SBK-ren kontra. 46-53 nagusitu ziren urdinbeltzak, eta zazpi puntuko aldea dute Maialen Chourraut kiroldegian jokatu duten bueltako norgehiagokari begira.



Hiru talde igoko dira. TXINTXARRI

Lauko Finala gertu

Norgehiagoka irabaziz gero edo zazpi puntu baino gutxiagoz galduz gero, Lauko Finalerako txartela lortuko lukete.

Ataleko arduradun eta taldeko jokalarik Endika Marrahik azaldu

duenez, hiru taldek eskuratuko dute bigarren mailarako igoera. Fase erregularreko bi talde txapeldunak euren arteko kanporaketa ari dira jokatzeko, eta horien artean bat igoko da zuzenean.

Lauko Finaleko txapeldunak ere bigarren mailan jokatu du datorren urtean. Azkeneko txartela Lauko Finaleko txapeldunordearen eta taldeko liderren arteko kanporaketaren gaitzailearen artean lehiatuko dute.

Hala, Lauko Finalera sailkatuko balira, eta lehenengo partidua irabaziko balute, bi aukera edukiko lituzkete Jose Luis Alonsoren mutilek. Kanporaketa hori talde sailkatuen artean 'errekor' onenak duenaren etxean jokatu da. Marrahik dioenez, "Lasarte-Orian jokatzeko aukera bada, baina litekeena beste herri batean jokatzeko da".

Jokalarik eta arduradunak "ondo" ikusten du taldea. Hala ere, ohartarazi du igoeraren lehian dauden guztiak "maila antzekoa" duten taldeak direla.

"Zailtasunak" izango dituzten arren, nabarmendu du "beste guztiak bezala" aukerak izango dituztela datorren urtean bigarren mailan aritzeko.



Fly Group eta Saiatuz kirol taldea dira, Udalarekin bat, antolatzaileak. TXINTXARRI

500 parte hartzaile baino gehiago espero dira BTT proban

Geltoki kaletik abiatuko da igandean VII. BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria trabesia. Bi ibilbide egin ahalko dituzte

Martin Vicioso

BTT froga jendetsua espero da igandean Lasarte-Orian. 350 kirolarik baino gehiagok eman dute izena orain arte, eta igandean irteeran 500 inguru izatea espero dute antolatzaileek.

09:30etan abiatuko da lasterketa Geltoki kaletiketa parte hartzaileek bi ibilbideren artean aukeratu beharko dute. Ibilbide motzak 28 kilometro izango ditu, eta luzeak 38. Jakitera eman dutenez, hornidura guneak kokatu dituzte 19. eta 31. kilometroetan. Bi kasuetan, dena den, hasierako kilometroak

neutralizatuak izango direla azaldu dute.

Helmugara iristean txistorrada eta garagardoa zain edukiko dituzte txirrindulariek.

Probarekin 'pozik'

Askatasunaren parkean aurkeztu zuten froga alkate Jesus Zaballosek eta antolatzaile diren Fly Group enpresako eta Saiatuz kirol taldeko kideek.

Nabarmendu zuten halako frogak Lasarte-Orian antolatzeak duen "garrantzia", eta "datozen urteetan harremanarekin jarraitzeko asmoa" erakutsi zuten.

Trinko triatloi taldeko kideak, probaz proba astebururo

Denboraldian bete-betean murgilduta daude Trinkoko kideak. Martxoan zehar hainbat probatan lehiatu dira.

Iñigo Gonzalez

Astebururo-astebururo, proba desberdinetako mailot eta kirol-jantzi koloretsuen artean, oso ohikoa da Lasarte-Oriako Trinko triatloi taldeko kolore berdebeltzak ikustea. Izan ere, talde horretako kideak bete-betean daude murgilduta denboraldian. Martxoan zehar ez dira geratu.

Larunbatean lau kide lehiatu ziren Arbizuko duatloian (Asier Gorostegi, Imanol Arteaga eta Iurgi eta Beñat Los Arcos) baina ezin izan zuten bukatu, baldintza klimatologiko kaskarrak tarteko.



Iurgi Los Arcos (berdez). FESTAK.COM

Astebete lehenago, Iurgi Los Arcosek berak eta Zigor Gallardok ordezkatu zuten Trinko, Altsasuko duatloian eta Donostiako Udaberri lasterketan, hurrenez hurren.

Martxoan zehar beste zenbait probatan aritu dira Trinkoko kideak: Leo Juarez eta arreba Cecilia Donostiako bikotekako lasterketan aritu ziren; Andoni Salsamendik Oñatiko duatloia egin zuen eta Arangurenkoa Iurgi Los Arcosek. Horrez gain, bizikleta irteera ere egin zuten hainbat kide hilaren 11n.

2017 sasoiaren murgilduta egonagatik ere, Trinko kideek nabarmen zuten dute eurekin taldera batu nahi duten guztiak atekatu dituztela orain ere, izena eman eta hemendik aurrerako kirol probetan kolore beltz-berdeak soinean eramateko.

Igandera arte egin ahalko da Euskal Herriko Itzuliko porra

Txirrindularitza zaleek aukera bikaina dute euren ezagutzak praktikan jarri eta pronostikoak egiteko, urtero-urtero Ostadar SKT antolatzen dituen porrei esker. Aurten, Euskal Herriko Itzulikoa prestatzera ere animatu da kirol elkarteak.

Apirilaren 3an, astelehenarekin hasiko da Itzulia. Porrako boletoak bezperan, igandean entregatu beharko dira, 18:00etan beranduenez. Ohiko tabernetan topatu ahalko dira txartelak, 7 euroan. Sariak honakoak dira: etapako, 60 euro; sailkapen orokorreko lehenarentzat 360, eta 180 bigarrenarentzat. Zazpi otar ere zozketatuko dira, eta 8.a azken sailkatuari emango zaio.

Ohorezko B mailako derbia Babyauto Zarutzek irabazi du

Bera Berak eta zenbait lasarteoriarren taldea den Babyauto Zarutzek elkarren kontra jokatu zuten asteburuan errugbiko Ohorezko B mailan. Donostiarrak bigarren dira sailkapenean eta Zarautzarrak, berriz, hirugarrenak.

24-14ko garaipenari esker, Ohorezko mailara igotzeko kanporaketa jokatzeko bere eskuan du Babyauto Zarutzek. Asteburu honetan, AVIA Eibarren kontrako partidua irabaziko balute, ziurtatuta lukete. Astin jokatu zen norgehiagokan herritarrak diren Ander eta Xabier Rekondok eta David Vegak jokatu zuten; Xabi Prieto, aldiz, aulkian geratu zen.

PLAZAN BAZAN

Arrotzak

Okindegi-gozotegietan saltzen ez diren zortzi elementu daude hemen. Zeintzuk dira?



Sudokuak

| | | | |
|---|---|---|---|
| | ■ | | |
| | | ■ | ● |
| ▲ | ◆ | | |
| | | ◆ | |

Osatu bi sudokuotako lauki zuriak, batean figura geometrikoak marraztuz eta bestean zenbakiak idatziz (1etik 4ra). Gogoratu elementu bakoitza behin bakarrik ager daitekeela zutabe, lerro eta area berde bakoitzeko.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 3 | | 1 | |
| | 2 | | |
| | | 2 | |
| | 1 | | 3 |

Itzala

Zein da Karramarro honi dagoKion itzala? Bakarra da zuzena.



Hilabeteko azken Txintxarri aldizkarian haurrentzako denborapasak aurkituko dituzu: jolastu Maripurtzil eta Pellozirirekin! Soluzioak eta jolas gehiago, www.plazanbazan.eus atarian. Sartu eta gozatu!

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

Maitte

B ETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



ZORION AGURRAK



Julen
Zorionak maitia!!! 5
muhu potolo zure
famiariaren partez. Ondo
ondo pasa.



Malen
Zorionak printzesa
amona eta aitona eta
gurasoen partez 7
muhu!




Aizpea
Zorionak maitia!!! zure
5. urtebetetzea
ospatzeko irrikitan
gaude! Bost muhu
potolo familia osoaren
partetik!




Irati
Zorionak bihotza, 9
muhu handi familia
guztiaren partetik!
Asko maite zaitugu!
Leire, aita eta ama.



Nora
Zorionak etxeko
brujilla; 6 muhu potolo
familia osoaren partez.
Oso ondo pasa.



Joxe
Zorionak artista!
Asteleheneko
hamaiketako ere zure
kontu!



Xuban eta Unai
Zorionak bikote!!! egun polita pasa dezazuela! muhu
potolo bat famiariaren partetik!!

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

101. SALDU

Herri batean etxea salgai
40.000 euro. Informazioa
eskatzeko deitu 663 515
265

Larraga herrian etxea
saltzen da. 3 logela, sala,
2 komun, sukialdea eta
terraza. Informazio
gehigarako 654 727 789

102. ERRENTAN EMAN

Garaje itxia alokatzen da
Pablo Mutiozabalen.
Informazio gehigarako.
686 674 552

2. LAN ESKAINTZAK

201. ESKAINTZAK

Emakume bat zaintzeko
interno moduan lan
egingo duen pertsona

bilatzen ari gara. 688 645
791

202. ESKAERA

Emakumea eskaintzen da
adineko pertsonak
zaintzeko, orduka edo
interna bezala lana
egiteko prest. 698 220
626

Orduka lan egin nahi nuke
nagusien zaintzan edota

garbiketa lanetan. 671
763 558

Orduka lan egingo nuke
egun zein gauez nagusien
zaintzan edota
garbiketetan. 634 278 198

Etxeko lanak egin eta
persona adinduak edo
haurrak zaintzeko
emakumea eskaintzen
da. Interna, externa edo
orduka. 676 188 411

4. IRAKASKUNTZA

402. EMAN

Ingelesko eskola
partikularrak ematen
dira. Maila eta adin
guztietan zuzenduta 693
601 222

Eskola laguntza
eskaintzen da, lehen
hezkuntzako umeentzat
partikularrak. Magisteritza
ikasita eta partikularretan

esperientzia dut. 660 787
502

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona
Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

JAIOTAKOAK

Alan Benitez Gamallo. Martxoaren 25ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 31 ORUE

Larunbata, 01 GANDARIAS-URIBE

Igandea, 02 GANDARIAS-URIBE

Astelehena, 03 ACHA-ORBEA

Asteartea, 04 URBISTONDO

Asteazkena, 05 GANDARIAS-URIBE

Osteguna, 06 ORUA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia
eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera
(www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKIJONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAK: 943 288 888
SOS DEIAK: 112

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Maidier Azurmendi,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
Martin Vicioso.

Publizitatea

Arantzi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurrola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi.

Informatikoa

Xabier Amador.

Administrazioa

Arkaiz Urdapilleta.

AGENDA

OSTIRALA 31

LASARTE-ORIA Jaialdia

Semblante Andaluz elkartearen 25. urteurreneko ospakizunen hasiera. *Michelingo Kirolgunea, 19:00etan.*

LASARTE-ORIA Bideoa

Euskararen 9. Maratoiaren bideo emanaldia Korrika Kulturalaren baitan eskainiko da. Sarrera doan. *Manuel Lekuona, 19:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinea

Okendo taldearen zineforumaren baitan 'Gutik zura' lana ikusiko da. Korrika Kulturalako ekintza da. *Manuel Lekuona, 22:00etan.*

LARUNBATA 01

LASARTE-ORIA Jaia

Korrika Festa egingo da egun osoan zehar. Kantu Jira, haurrentzako tailerrak, herri bazkaria, haur jolasak, erromeria eta kontzertuak izango dira gaueko ordu txikiak arte.

Herrian zehar, 12:00etatik.

LASARTE-ORIA Jaia

Semblante Andaluzen 25. urteurrena. 12:00etan hasiko dira ekintzak; Oaintxe In Deu txaranga, Semblanteko dantza-taldeen saioak, herri-bazkaria. 17:00etan Erketz EDTren saioa, Zero Setteren emanaldia, Arrasateko Al-Andalus zentroko Alegría de la Sierra eta herriko Amigos del Suren emanaldia. 19:00: Barakaldoko Hijos de Jaén andaluziar zentroko koruaren emanaldia. 19:30ean Barakaldoko Hijos de Almachar andaluziar zentroko korua. 20:00etan Durangoko andaluziar zentroko koruaren emanaldia. 20:30ean Amaia González Caballeroren dantza taldeen emanaldia eta 22:00etan Raíces del Sur. *Michelingo Kirolgunea, 12:00etatik.*

LASARTE-ORIA Antzerkia

Korrika Festaren baitan, Ane Labaka eta Bea Egizabalen 'Erradikalak gara' ikuskizuna. Sarrera 5,50euro. *Manuel Lekuona, 20:00etan.*

IGANDEA 02

LASARTE-ORIA Jaia

Semblanteren 25. urteurrena. 12:00etan familia argazkia. 12:30ean herriko danborradari harrera. 13:00etan Zambraren emanaldia. 13:30ean Suberriren emanaldia. 14:00etan ohorezko aurrekua eta agintariei harrera. 14:30ean bazkaria. 18:00etan Zambra. 20:00etan Huelvako Manguararen saioa eta jarraian dantzaldia. *Michelingo Kirolgunea, 19:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinea

'El regalo de molly monster' haurren zinema atalean. Sarrera 3,80euro. *Manuel Lekuona, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinea

'Vivir de noche' filma helduen zinema atalean. Sarrera 5, 50 euro. *Manuel Lekuona, 19:30ean.*

ASTELEHENA 03

LASARTE-ORIA Erakusketa

Memoriaren, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Gogora institutuak sustatuta Memoriaren plaza erakusketa zabalduko da. *Okendo plaza, 18:00etan.*

ASTEARTEA 04

LASARTE-ORIA Mahai ingurua

Gogorak sustatuta Memoriaren plaza erakusketa egongo da aste betez. Honen baitan, 16:00etan 'Heriotzaren Triangelua' eta 17:00etan 'El valor de la autocrítica' dokumentalak ikusi ahalko dira. 19:00etan Terrorismoaren biktimekin mahai ingurua: Josu Elespe, Feli Goikoetxea eta Manoli Urritegi. *Okendo plaza, 16:00etatik.*

LASARTE-ORIA Kontzertua

12. Musika topaketen baitan Elsa Ferrer biolin jolearen emanaldia. Barrokoko lanak eskainiko ditu. Sarrera doan. *Brijitarren komentua, 19:30ean.*

ASTEAZKENA 05

LASARTE-ORIA Hitzaldia

'1960-2013 aldirian Euskadin gertatutako tortura kasuak' hitzaldia Laura Pegoren eskutik. *Villa Mirentxu, 19:00etan.*

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Gogorak sustatuta Memoriaren plaza erakusketa egongo da aste betez Okendon. Honen baitan 16:00etan 'Heriotzaren Triangelua' 17:00etan 'El valor de la autocrítica' dokumentalak. *Okendo plaza, 16:00etatik.*

OSTEGUNA 06

LASARTE-ORIA Mahai ingurua

Memoriaren plazan 16:00etan 'Heriotzaren Triangelua' 17:00etan 'El valor de la autocrítica'. 19:00etan Alkateen mahai ingurua Jesus Zaballos, Luis Intxauspe (Hernani) eta Mikel Pagola (Urnieta). *Okendo plaza, 16:00etik.*

LUIS CAR

autobusak





- Espainiako eta nazioarteko guraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre Plaza 1, Lasarte-Oria
 Tel/Faxa: 943 36 63 16
 Mugikorra: 629 461 897
luiscarbus62@hotmail.com

RPS 233/13



INPLANTEETAN ESPEZIALISTAK



Informa zaitez!

943 36 63 77

www.dentalaldaz.com



Lasarte - Oria
Ola kalea, 10

Elgoibar
San Bartolomé, 22

Tolosa
San Frantzisko, 39

ZABALETA BERRI BIZIGUNEA

TERRAZAK ETXEBIZITZA
GUZTIETAN,
100m²taraino

BISTA EZIN HOBEAK
SANTA BARBARA ALDERA

PERTSONALIZAZIO
GUZTIAREKIN

2 LOGELA +12m²ko terraza
199.000 €tik + BEZ

3 LOGELA +16m²ko terraza
215.500 €tik + BEZ



ADI !!
Azken hilabetea!
ETXEBIZITZA LIBREAK
HITZARTUTAKO PREZIOAN,
Donostitik 8 minutura

DENA BARNE



GARAJEA



ARMAIRUAK



SUKALDEA



PERTSONALIZAZIOA

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA
Apirilak 11



943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

Infografía hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan